

Denboraren makina

Usoak: bake ikur,
gerrarako tresna

- ▣ *Ezpalak*
- ▣ *Argitalpenak*

- ▣ *Denbora-pasak*
- ▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Santa Eufemia
baseliza: 222
eskailera zerura

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Arte dramatikoa sekretuen bila

Ikasturte hasieran, antzele askok maletak egin eta arte dramatikoa ikasketak Euskal Herrikan kanpo egiteko pausoa ematen du. Euskal Herrian dauden hezkuntza aukerak xahututa, arte honetan gehiago sakontzeko beharrak bultzatuta ekiten diote gehienek abenturari.

AINARA
GURRUTXAGA



DANI BLANCO

2007ko urriaren 7a

ARGIA
29



DANI BLANCO



DANI BLANCO



DANI BLANCO

Maletak egiten aurkitu dugu Iñigo Ortega. Londresera doa arte dramatikoko ikasketetan sakontzera.

Atzerrian trebatzen dira gure aktoreak

“ANTZEZTEKO BEHARREZKOAK diren tresna sendoagoen bila noa” dio Iñigo Ortega, hamabost egun barru Londresera abiatuko duen bidaiaren zergatiak galdetuta. London International School of Performing Arts eskolan hasiko ditu ikasketak, Jacques Lecoq-en pedagogia jarraitzen duen zentroan. Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean egin zituen hiru urtez antzerki ikasketak lehenago: “Suhiltzaile izan nahi nuen baina probak egin baino lehen belauna txikitu nuen eta amets hura bertan behera erori zitzaidan. Lagun baten gomendioz antzerki ikastaro batean eman nuen izena, orduan Erreterian zegoen Arte Eszenikoen Tailerrean. Bertan topatu nuen taldeagatik edo, sekulako esperientzia izan zen, kristoren dinamika topatu genuen eta guztiz harrapatu ninduen. Hala ere, ondoren egin ditudan aktore lanetan konturatu nintzen hezkuntza falta zitzaidala”.

Helburu berarekin abiatzen da gazte asko urtero kanpora. Gurean antzerkiak ez du hezkuntzan behar lukeen lekua eta, hortaz, dramaren kultura zabalduago dagoen herrietara eta urteetako esperientzia duten eskoletara jotzen dute askok.

Hizkuntzak muga batzuk ere jartzen ditu ordea, eta horregatik Hegoaldeko ikasle gehienek Madril edo Bartzelonara jotzen dute. Bi hiriburu horietan eskola ugari dago, eta antzerki giroa ere biziagoa da. Biek dute euren goi mailako antzerki eskola ofiziala, eskola publikoa, RESAD Madrilen eta Institut del Teatre Bartzelonan. Lau urteko ikasketak dira eta unibertsitate lizentziaturaren pareko titulazioa eskura daiteke. Urtero gazte mordoak egiten du sarrera eskaera, eta ikasurtea hasi baino lehen azterketa gogorrak gainditu behar izaten dituzte hautagaiek. Iparraldetik batez ere Bordelerako bidea egiten du askok, bertako unibertsitatean Arts du Spectacle lizentziatura egiteko.

Espanian, bestalde, eskola pribatuak ere ugariak dira –kasu batzuetan laguntza publikoaren babesa ere badutenak–. Usuenik haue-tan bizpahiru urteko ikastaroak eskaintzen dituzte, eta ematen dituzten irakasgaiak espezializatuagoak izaten dira. Badira telebistara bideratutakoak, zine aktore izateko ikasketak edo bereziki taula gainean aritzeko prestakuntza ematen dutenak ere. Urteetako ibilbidea egina dute horietako batzuek. Ezagune-

Maialen Eyherabide aktorea "Aktore profesional izan nahi nuke"



"Aire" pixka bat hartzeko eta gauza berriak ikusteko gogoz abiatu zen Maialen Eyherabide Bordeleko Unibertsitatera. Antzerki Lizentzia –Arts du Spectacle, frantsesez– eskuratu zuen 2004an. Gaur egun Biarritzen Théâtre des Chimères konpainiarekin formazio ikastaro bat ari da egiten.

Noiz erakarri zintuen lehenengoz antzerkiak?

Kolegioan nintzenean antzerki talde bat sortu genuen eta antzerkilari-irakasle desberdinekin –Xirristi Mirristi taldeko Kattalin

Salaberrri, Bordaxuriko Frantxoa Cousteau, Hegoaldetik etorritako Olatz Beobide...– obra bat landu eta aurkezten genuen urte guztiz antzoki batean. Lizeoan Antton Lukuren ezagutza egin eta harekin segitu nuen ikasten.

Zeharo ezberdina izango zen Bordelen bizitza...

Bai, esperientzia interesgarria. Handituz ikuspuntuak moldatzen dira eta zailtasuna horretan nabaritu dut egia erran. Berria den guztia interesgarria eta beldurgarria izaten ahal da ene ustez, galderak heldu zaizkigu burura: antzerkilari profesionala bilakatu ala ez ?

Antzerki mota ezberdinak ere deskubrituko zenituen.

Bai eta edozein formek interesa sortzen dute ene baitan. Garrantzitsuna adierazi nahi duguna da, zer lan eramana den eta zer nolako energia eman nahi dugun proiektua biziarazteko!

Zein konpainia duzu gustuko?

Ikusi ditudan lehen antzerkiak Le Petit Théâtre de Pain konpainiarekin izan dira. Eta beren lana biziki maite dut! Energia ederra nabari da taula gainean eta hautatuko obrak aberatsak dira, Arrabalek adibidez –hiru presondegitaro ametsak Francoren garaian–. Idazten dituzten testuak engaiatuak dira, biziaz mintzo dira –portu baten bizia, droga eta pobrezia munduan–. Poesiaz beteriko antzerkiak sortzen dituzte, maska eta musika erabiliz. Théâtre des Chimères konpainiaren lana ere gustatzen zait.

Beraiekin formatzen zabilta orain, eta ondoren zer?

Antzerkilari profesionala izan nahi nuke, horregatik formazioak eta ikastaldiak segitzen ditut antzerki konpainietan, Euskal Herrian eta Frantzia.

Hemen zure lana garatzeko aukerarik ikusten duzu?

Ez dakit, ez baitakit Euskal Herrian egonen naizen, mugitu nahi nuke. Ene ustez, etorkizuna egiten ditugun topaketekin eraikitzen da. Gaur egun Théâtre des Chimères antzerki taldearekin formazio baten burutzen ari naiz eta Bordelera joateko esperantza dut beste lan baten hasteko bertako antzerkilari batzuekin. Zinema ezagutzea ere gustatuko litzaidake.

nak, agian, Willian Laytonen laborategia, Juan Carlos Corazza, Cristina Rota edo La Abadia ikastegiak dira Madrilan eta Teatre Studis, Bartzelonan. Zerrenda luzea da ordea, eta aktorearen beharren arabera bata

Astakiloen abenturak



8 liburuz

osatutako ipuin bilduma



Bernardo Atxagak idatziak
Marrazkiak: Jokin Mitxelena



**Urriaren 6tik aurrera,
larunbatero BERRIarekin!**



Liburu guztiak erosiz gero,
astakiloen marrazki bizidunen
DVDa opari!

6 abentura biltzen ditu. 60 minutuko
iraupena du.

Babesleak:



AUREA EZAZU, BIZI GUSKATUZ **berria**

Aktore prestakuntzarako zenbait eskola nazioartean

- ✓ RESAD. Madril (Espainia).
www.resad.es
- ✓ ESAD. Malaga, Sevilla, Murtzia, Kordoba (Espainia) eta Valentzia (Herrialde Katalanak).
www.esad-malaga.com
- ✓ Laboratorio de William Layton. Madril (Espainia).
www.laytonlaboratorio.com
- ✓ Escuela Corazza. Madril (Espainia).
www.teatrocorazza.com
- ✓ Escuela de Teatro Mar Navarro. Madril (Espainia).
www.marnavarro.com
- ✓ Cristina Rota. Madril (Espainia).
www.cnc.eca.es
- ✓ Institut del Teatre. Bartzelona (Herrialde Katalanak).
www.institutdelteatre.org
- ✓ Teatre Estudis. Bartzelona (Herrialde Katalanak).
www.teatrestudis.com
- ✓ Bululú 2120. Madril (Espainia).
www.bululu2120.com
- ✓ Territorios Nuevos Tiempos (TNT). Sevilla (Espainia).
www.atalaya-tnt.com
- ✓ Ecole Jacques Lecoq. Paris (Frantzia).
www.ecole-jacqueslecoq.com
- ✓ Philippe Gaulier. Janville-sur-Juine (Frantzia).
www.ecolephilippegaulier.com
- ✓ London International School of Performing Arts. Londres (Erresuma Batua).
www.lispa.co.uk
- ✓ Theatre de L' Ange Fou. Londres (Erresuma Batua).
www.angefou.co.uk
- ✓ La Mancha. Santiago (Txile).
www.lamancha.cl
- ✓ Dell' Arte. Blue Lake, Kalifornia (AEB).
www.dellarte.com

edo bestea izango da egokiena. “Zein bide gustuko duzun jakiteko, antzerki mota ezberdinak probatzeak asko laguntzen du. Esaterako, Donostiako Teatro Estudioekin aritu izan naiz lanean eta haiei esker Txekhov edo Valle Inclán bezalako egileak ere ezagutu ahal izan ditut”, dio Iñigok. Berak orain Lecoq pedagogian oinarritutako eskola hautatu du, gorpuzaren eta mugimenduaren ahalmen poetikoak aldarrikatzen dituen eredua: “Gorpuzaren adierazkortasuna landu nahi dut. Gainera norberak bere lengoia, bere antzerkia bilatzea da eskolaren xede nagusia eta horrek asko erakartzen nau. Dogmak baino, lanerako tresnak eskuratzeko”.

Mugimenduaren poetika

XX. mende hasieran antzerki pedagogiak aldaketa sakonak ezagutu zituen mendebaldeko kulturaren. Testuan oinarritutako antzerkiaren aurrean, mende berriak antzezlearen espresatzeko ahalmena azaleratu nahi izan zuen, eta gorpuzaren poetikotasuna, adierazpen gaitasuna aldarrikatu. Konstatin Stanislavski, Jerzi Grotowski, Eugenio Barba, Gordon Craig, Antonin Artaud edo Tadeusz Kantorrek, besteen artean, antzerkiaren zutabe zaharrak kolokan jarri zituzten euren oholtzaratze ausartekin. Pedagogiak ere urratsak eman behar zituen, aktore-sortzaile baten bila. Jacques Copeau frantziarraren eskutik heldu zen proposamen sendoenetako bat. Parisko Theatre Vieux-Colombier eskolan gorpuztu zuen. Bertan, maskarekin lehen probak egin hasi ziren. Copeauren ondotik heldu

ziren Etienne Decroux-en “gorputz mimoa” eta baita Jacques Lecoq-en mugimendua ere. Pedagogia bakoitzak bere ezaugarri bereziak izan arren, helburu bertsua dute: naturalismotik urrunduz, aktoreari bere gorpuzaren bidez espresio tresnak eskaintzea. Gaur egun Lecoq-en eta Decroux-en pedagogietan oinarritutako eskola ugari dago munduan. Horien artean Parisko Ecole International Jacques Lecoq, fundatzaileak duela 40 urte sortua.

Ezin aipatu gabe utzi, ordea, Stanislavski errusiarraren pedagogiak utzitako marka.

“Gorpuzaren adierazkortasuna
landu nahi dut. Gainera norberak
bere lengoia, bere antzerkia
bilatzea da eskolaren xede nagusia
eta horrek asko erakartzen nau”

IÑIGO ORTEGA

Abadia eskolak ere Stanislavskiren azken urteetako akzio fisikoen sistema jarraitzen du.

Hala ere, ikasteko modurik zaharrena aritzea omen da. Hezkuntzak eskaintutako baliabideak, norberak nahi duena adierazteko erabiltzen direnean. “Bueltatzean lan-taldean ikertzen jarraitu nahi nuke, hemen gauza asko daude egiteko!”, dio Iñigo Ortegak elkarrizketa amaieran, “ikasitakoarekin inguruan ditugun ideiak eta egitasmoak gauzatzea nahi nuke. Buztinarekin eskultura egitea bezala da, jakin behar dira teknika batzuk noski, baina garrantzitsuena buztina da eta harekin zer egin nahi duzun”. ■